

GUNE EGOKIA DA HAINBAT GAUZA SUSTATZEKO balioak, gizarte trebetasunak, joko garbia, inklusioa, laguntasuna, ahalegina eta berdintasuna; aldi berean, haur bakoitzak jakinen du zer kirol egokitzen den hobekien bere gustu eta trebetasunetara

MULTIKIROLEAN

Hasteko

Udal Eskola

2020 / 2021

4 eta 8 urte bitarteko haurrentzat

IZEN-EMATEA

Irailaren 30era arte
948 012 012ra deituz



SERVICIO DE DEPORTES | KIROL ZERBITZUA

Laguntzailea:

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua



ZER DA MULTIKIROLA LANTZEN HASTEAK?

Kirol jarduera integratzailea da, haurren mugimendu-trebetasunak modu ludikoan eta ez lehiatuan garatzeko eta lantzeko pentsatua. Trebetasun horiek aurrerago egiten ahal den edozein kirol jardueraren oinarria dira. Halaber, oso baliagarriak dira egunero egiten ditugun jardueretarako. Adituek gomendatzen dute haurrek Multikirola egitea,

beste kirol batzuetan hasi aurretik. Halaber, oso baliagarria da pertsona bakoitzari zein kirol datorkion egokien jakiteko.

Gure helburu nagusia da balioak eta gizarte trebetasunak sustatzea, hala nola errespetua, joko garbia, inklusioa, laguntasuna, ahalegina eta berdintasuna.

ZERGATIK EGIN MULTIKIROLA?

Hainbat azterketa zientifikok haxe jarri dute agerian:

- Kirola funtsezkoa da edozein haurren hezkuntzan. Garapen fisikoa, kognitiboa eta soziala suspertzeaz gain, bizitzeko ohitura osasungarriak garatzen ditu.
- Kirol bat baino gehiago egiten dutenek kirola geroago uzten dute, adin goiztiarretan kirol batean espezializatzen direnek baino. Adin goiztiarretatik kirol bakarria egiten duten haurrek "erretzera" jotzen dute, bai eta

motibazioa eta interesa galtzera ere; halaber, kirolaz lehenago gozatzeari uzten diote espezializazioa geroago egiten dutenek baino.

- Kirol bat baino gehiago egiten duten haurrek garapen atletiko eta motor hobea dute, eta halaber, trebetasun handiagoa, beste jarduera batzuetan eskuratutako gaitasun oso erabilgarriak transferitzeko. Sormen handiagokoak dira, eta konfiantza eta motibazio maila altuagoak dituzte.

Udalaren MULTIKIROL Eskolaren PROGRAMA

PSIKOMOTRIZITATEA 4 eta 5 URTE

Pertsonaren ikuskera integralean oinarriturik, ezagutzaren, emozioaren eta mugimenduaren artean sortzen den elkarrekintza arduratzen da psikomotrizitatea. Jarduera horrek probetxurik handiena ateratzen dio elkarrekintza horri, pertsona garatzeko. Izan ere, kontaktuan jartzen du gizakiaren gorpuztasuna pertsonaren adierazmenarekin, bai eta "inguratzen duen" munduarekin harremanetan sartzeko gaitasunarekin ere.

Haurren adinari hobekien datorkion erarik pedagogikoenean sustatuko ditugu haien ahalmen psikomotrizitateak. Jolasa gure tresna nagusia izanen da.

ORDUTEGIA

Euskarazko taldea

Astearte eta ostegunetan,
17:00tik 18:00ra

Gaztelaniazko taldea

Astelehen eta asteazkenetan,
17:10etik 18:10era

NON

Martiket aretoan

MULTIKIROLA 6 eta 7 URTEKOAK

Udalaren Multikirol Eskolak Atarrabian guztiz errotuta dauden eta ondoren gainerako Kirol Eskoletan egiten ahal diren kirolak erakutsi nahi ditu mailaka, eta modu erraz eta atseginean.

Ikasleak kirol horietako bakoitzaren ezagutza oinarritzeko jasoko du, bere adinera egokitutako jolasaren bidez, hala banaka nola taldeka, gorputzez eta buruz bere garapena sustatzeko. Ikasturtean zehar eta, gutxi gorabehera, 60 saiotan, kirol hauek landuko ditugu:

ORDUTEGIA

Euskarazko taldea

Astearte eta ostegunetan,
18:15etik 19:15era

Gaztelaniazko taldea

Astelehen eta asteazkenetan,
18:15etik 19:15era

NON

Indurain Anaiak kiroldegian

IRAILA - URRIA - AZAROA

Hastapena **Atletismoa** (10 saio)
Eskubaloia (6 saio)

ABENDUA - URTARRILA - OTSAILA

Hastapena **Eskalada** (6 saio)
Gimnasia Artistikoa (6 saio)
Eskupilota (6 saio)

MARTXOA - APIRILA - MAIATZA

Iniciación a **Borroka kirolak** (6 saio)
Igeriketa (6 saio)
Futbola (6 saio)
Irristaketa/Txirindularitza (8 saio)